

**PROCESO DE PARTICIPACIÓN PARA LA
ELABORACIÓN DEL PLAN DE LA DIRECCIÓN
GENERAL DE CULTURA-INSTITUCIÓN
PRÍNCIPE DE VIANA.**

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO KULTURA
ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOA
BURUTZEKO PARTE HARTZE PROZESUA**

**REUNIÓN TERRITORIALES
ÁREA DE DONEZTEBE**

**LURRALDEKAKO BILERAK
DONEZTEBEALDEA**

DONEZTEBE, 27 de septiembre de 2016

DONEZTEBEN, 2016ko irailaren 27an

AURKIBIDEA

1.-SARRERA.....	1
2.-HELBURUAK ETA METODOLOGIA OROKORRAK	2
3.-PARTE-HARTZAILEAK	3
4.-BILERAREN GARAPENA	4
5.-LABURBILKETA ETA AGURRA	10

1.-SARRERA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzeak Hiritar Parte-hartze prozesua garatzen ari da Zuzendaritzaren Egitasmoa burutzeko. Prozesu hau Maiatza eta Ekaina bitartean antolatu ziren gaikako bilera sektorialekin martxan jarri izan zen, hauek Nafarroako panorama kulturaren sektore ezberdinen informazioa eskaintzea eta iritzi ezberdinak jasotzea helburutzat zutelarik.

Behin bilera sektorialekin amaituta, lurraldekako parte-hartze bilerak antolatu egin ziren, Nafarroako zonalde ezberdinetan burutu izan zirelarik eta helburutzat Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa Nafarroako lurraldean zehar ezagutaraztea eta iritzi plural eta ezberdinagoak jasotzea zituztelarik.

Dokumentu-akta honek Doneztebeko Herriko Ostatuan 2016ko irailaren 27an garatu zen bileraren inguruko informazioa biltzen du.

Bilera honetan parte hartzeko deialdia irekia izan zen, deialdia batez ere zonaldeko kultura agente ezberdinei zuzendu izan zelarik (koordinatzaileak, ordezkari politikoak, elkarten ordezkariak, enpresak, etab.).

2.-HELBURUAK ETA METODOLOGIA OROKORRA

Doneztebeko lurraldekako bilera 2016ko irailaren 27an garatu zen Herriko Ostatuan 17:00 eta 19:00 orduen bitartean

Bilerara erakunde instituzional, elkarte eta enpresariak ziren 16 pertsona bertaratu ziren, guztiek kultura arloarekin zerikusia zutena.

Tailerraren **helburuak** ondorengoak ziren:

1. Parte-hartze Prozesua aurkeztea lurraldekako fasean.
2. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa aurkeztea.
3. Iritziak, ekarpenak, eta. jasotzea, bai zonaldeko kultura beharrei dagokienez, bai Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoarenganako proposamenei dagokienez.

Lurraldeko bilerak ondorengo ordena jarraitu izan zuen:

1. Nuria Álvarez Ajuriaren, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren **agurra eta ongietorria.**
2. **Parte-hartze prozesuaren azalpena** oro har eta **zehazki parte-hartze bilerarena** (arauak, bileraren antolaketa, etab.)
3. Nafarroako Gobernuo Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskutik **Zuzendaritzaren Egitasmoaren aurkezpena.**
4. Talde dinamikaren **parte-hartze lana.**
5. Talde lanaren **bateratzea.**
6. Amaiera eta agurra.

3.-PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK	
Izen deiturak	Erakundea
JUAN CARLOS PIKABEA ZUBIRI	ARTISTA PINTOR
BELEN MUTUBERRIA VERGARA	AYUNTAMIENTO DE LESAKA
ANA LARRUY ALAÑA	BAZTANGO UDALA
ESTHER FERNANDEZ CASA	SUNBILLAKO UDALA
MARGARITA ERDOZAIN AZPILIKUETA	DONEZTEBEKO UDALA
XANTI UTERGA LABIANO	DONEZTEBEKO UDALA
UNAI LOIARTE ANSA	AYTO DE GOIZUETA
ESTEVAB MARICHALAR ITURBIDE	LESAKAKO ABESBATZA
REÚL IGLESIAS ÁLVAREZ	AYTO. DE BERA
ZURIÑE LUJAMBIO ZABALA	AYUNTAMIENTO DE GOIZUETA
LUIS FRANCISCO SÁENZ MORENO	S.C.R.D. BETI GAZTE
AINHOA AGUIRRE	MUSEO Y CUEVA DE LAS BRUJAS
M ^a MERCEDES BARBERO TAMAYO	ELIZONDOKO ABESBATZA
PURI ETXEBERRÍA IZUETA	ULTZAMAKO UDALA
ITSASO TAPIA ALZUGUREN	BAZTAN BIDASOA TURISMO GARAPENA
ÍÑIGO AGOSTA LATASA	CEDERNA GARALUR

ANTOLAKUNTZA	
Izen deiturak	Erakundea
NURIA ALVAREZ AJURIA	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA
ABEL DEL REY PALACIOS	EIN
JAGOBA ESAIN AZCONA	EIN

4.-BILERAREN GARAPENA

Nuria Álvarez Ajuriak, Kultura Zuzendaritza Nagusiko Teknikari Kulturalak bertaratu direnak agurtzen ditu eta Abel del Rey, EIN-eko, parte-hartze prozesuaren laguntza teknikoko ordezkaria aurkezten du, prozesuaren azalpen orokor bat eta baita parte-hartze dinamikarena ere egiten duena.

Ondoren, Nuria Álvarez Ajuriak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoaren laburbilketa azaltzen du.

Honen ostean parte-hartze dinamika azaltzen da eta bertaratutakoak bi taldetan banatzen dira bileraren parte-hartze atalari hasiera emateko.

Azkenik bi taldetan landu izan diren gaien erakusketa egiten da.

Lurraldekako bileran egindako aipamen nagusienak ondorengo orrialdeetan azaltzen dira.

1.- ZURE ABURUZ, ZEINTZUK DIRA ZURE HERRI/EKUALDEKO KULTURA BEHAR NAGUSIAK?
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Biltzeko eta baita entseguetarako espazioen falta garrantzitsua nabaritzen da, baita elkarte ezberdinentzako eszenatoki irekiak ere, zonaldean kultura eskaintza berria ahalbidetuko zutena.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura eskaintza dela eta hutsune nabaria dago, nahiz eta Nafarroako Gobernuak sustatutako programa batzuek onuragarriak izan diren, 400/1000 kasu.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Eskaintza kulturala bilduko zuen hedabide zehatz bat falta da.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herri txikietan barna publikoa mugiaraztea nahiko zaila da batez ere errepideen egiturak zailtzen duelako eta aldi berean kultura eskaintza eta ikuskizunak nahiko eskuragaitzak dira herrietan, are gehiago herriak gero eta txikiagoak izatean.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Diru laguntzen epeak direla eta, badira azaro eta abendu partera diru horrekin lan egin ez duten elkarteak. Hau dela eta, ezinezkoa da behar bezalako programazioen planifikazioa egitea, honek ziurgabetasun egoera eragiten duelarik elkarte eta herrien artean ekintzak garatzea posible izango den edo ez ezin baitute jakin.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Eskualdeko kultura garatzeko baliabide ekonomikoen eskasia nabaria da.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Sortzaileek edozein motatako kultura diziplinatik laguntza eskasia nabari dute
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Haranaren barneko herri ezberdinek dituzten errealitate kulturalerikiko ezjakintasun maila handia sumatzen da.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Nazio mailan Nafarroa ez da inongo ekimen kulturalen erakuslea. Ez da inongo erreferentziarik kultura mailan.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Parte hartzen duen biztanleriak era pasiboan egiten du, ekintza edota ekitaldi ezberdinak sortzerakoan biztanleriaren parte hartze aktiboa oso eskasa izanda.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura koordinazio zerbitzua beharrezkoa da baina ezin da herri guztietan horrelako zerbait eduki honek suposatzen duen gastu ekonomikoa dela eta. Egun dauden koordinatzaileek, euren betebeharez aparte zeregin asko betetzen dituzte, askotan atezain lanak egiten edota beste askotan hedapen lanak eurek egin behar dituztelarik.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura egitasmoak Nafarroako Gobernuak sail eta bulegoetan antolatzen dira, baina gero herri mailako errealitate ezberdinei moldatzea oso zaila da.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Batzuetan martxan dauden diru laguntzek ez dituzte oinarrizko beharrak betetzen memento horretan tokiko erakunde lokalen beharrei moldatuta ez daudelako edota eskualdeko egoera dela eta.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Alde nabaria dago herrien artean; izan ere batzuen kasuen azpiegitura eskasia nabaria da, baina beste batzuetan aldiz, hauen kontzentrazio maila handia dago, herri hauen artean arazoak sor ditzakeenak kultura programazioa burutzeko mementoan.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura eta historia ondarea ez dago behar bezain baloratua eta baliabide ekonomiko handiagoak beharrezkoak ditu behar bezala eraberritu dadin.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kulturaren oinarria bultzatzea oso zaila da, egungo haurrek kultura eskatu dezaten kultura ekintzen bultzatzea beharrezkoa da.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Donezteberen kasuan, herriak liburutegi itundu bat dauka, informatizatu gabeko zerbitzuak dituenak eta behar bezalako zerbitzua eskaintzeko beharrezkoa den ordutegia ez duena.

1.- ZURE ABURUZ, ZEINTZUK DIRA ZURE HERRI/EKUALDEKO KULTURA BEHAR NAGUSIAK?
<ul style="list-style-type: none"> Askotan antolatzen diren kultura jardunaldien aurrean biztanleriak eskasiaz erantzuten du. Ez dago herritarren artean "gose popularrik".
<ul style="list-style-type: none"> Eskualdean kultura ekintzak antolatzen zituzten elkarten eta erakundeen arteko erlazioa izatea beharrezkotzat hartzen da eta lehen zegoen katalogoa faltan sumatzen da, non elkarte hauek eta euren ekintzak agertzen ziren.
<ul style="list-style-type: none"> Kultura eskaintza egun baino askoz deszentralizatuagoa egon beharko zen, erakunde txikiagoen eskuragarritasuna hobetuko lukeena.
<ul style="list-style-type: none"> Askotan tamaina txikiko erakunde lokalek ez dute zerbitzuak eskaintzeko azpiegiturarik behar, baizik eta zerbitzua bera beharrezkoa dutela, hau garatzeko akaso azpiegitura finko bat izatea guztiz beharrezkoa izan ez daitekeelarik (adibidez liburutegi zerbitzua).
<ul style="list-style-type: none"> Ondarea interpretatzeko zentroak bultzatu beharko ziren.
<ul style="list-style-type: none"> Herrien artxibategiak digitalizatzeko baliabide ekonomikoak falta dira.
<ul style="list-style-type: none"> Kultura espaziorik eta kultura koordinatzailezik izan ezin duten herri txikiek kultura sustatzeko laguntza sistema zuzena izan beharko zuten.
<ul style="list-style-type: none"> Eskaintzen diren diru laguntzekin kultura ekintza ezberdinen arteko koordinazioa hobetu egin beharko zen.
<ul style="list-style-type: none"> Kultura lantzeko azpiegitura lokal gehiago beharrezkoak dira, baita baliabide kultural gehiago izatea ere, halanola material bibliografikoa edota filmografiakoa.
<ul style="list-style-type: none"> Nafarroako Gobernuaren kultura sustatzeko egitasmoen eta kultura eskaintzaren informazio gehiago izatea beharrezkoa da, baita kultura eskaintzaren inguruko informazioa biltzen duen agenda kulturala izatea ere.
<ul style="list-style-type: none"> Historia ondarea dela eta, beharrezkoa da hauen balorea sustatzea eta baita hauen erabilpena ere, honen gabeziagatik hondatzen ari baitira. Hauen eraberritze prozesuan kulturarako espazio bezala probestu zitezkeen zonaldean beharrezkoak diren zerbitzu kulturalak sustatzeko espazioak izan zitezkeelarik.
<ul style="list-style-type: none"> Eskualdeko kultura arloaren barne ematen diren ekintzak koordinatzeko zerbitzua beharrezkoa da, honen barne erakunde kultural eta administratiboak egongo zirelarik, kultura dinamizazioan elkarlanean arituko zirelarik.
<ul style="list-style-type: none"> Ez dago behar bezain beste koordinazio herri ezberdinen artean bakoitzaren azpiegiturak probesteko, betiere maila ezberdinetan (kultura eskaintza, azpiegiturak, etab.)
<ul style="list-style-type: none"> Azpiegiturak erabiltzen dituzten pertsonetikiko egokitu beharko ziren, eskaintza benetako eskarira moldatzeko.
<ul style="list-style-type: none"> Kultura Egitasmoa era egokian hedatu beharko zen herritarrek sustatu behar diren ekintzak ezagutu zitzaten. Hau dela eta komunikazio ildo bat izan beharko zuen, teknologia berriak erabili beharko zituenak xede honetarako.
<ul style="list-style-type: none"> Udaletxeek eskainitako diru laguntzak birbideratu beharko ziren euren herrientzat egokienak diren ekintzengana zuzenduz.
<ul style="list-style-type: none"> Kultura kontsumoa bultzatzeko; halanola zinema edota literatura, beharrezkoak diren espazioak beharrezkoak dira herri txikietan.
<ul style="list-style-type: none"> Kultura azpiegituren planifikazioa egiterakoan gazteriaren kolektiboa kontuan hartu beharra dago.

1.- ZURE ABURUZ, ZEINTZUK DIRA ZURE HERRI/EKUALDEKO KULTURA BEHAR NAGUSIAK?

- Existitzen diren liburutegiak berritu beharko ziren.

2.- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOAK ZER NOLA EKINTZA/PROPOSAMENAK EDUKI BEHARKO ZITUEN?
Eskualdeko udaletxeen kultura zerbitzu ezberdinak koordinazioaz arduratuko zen sistema eratzea.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Eskualdeko herrien baliabide kulturalen datu-base bat eratzea hauen arteko mailegua eta elkarlana errazteko.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udaletxeen arteko elkarlan hitzarmenak sinatzea, ez soilik eskualde barnekoen artean, baizik eta kanpokoekin ere, jardunaldi kulturalen mugikortasuna erraztuko zuena era ekonomikoago batean, edota herritarren mugimendua erraztuko zuena beste tokietan antolatzen diren jardunaldietara joateko.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Laguntza ildoak eratzea bai publikoaren bai artisten mugikortasuna errazteko; eskualde barnetik eta baita kanpotik ere.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Eskualdeko kultura ekintzak ezagutzeko sistema informatiko bat eratzea, antolatzen den kultura eskaintza ezagutzearren.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrekontuen hazkundera eskualdeko herriek diru laguntza gehiago izan ditzaten, horrela baliabide ekonomiko gehiago izateko eta baita giza kapital handiagoa izan dezaten.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Doneztebeko Liburutegiko zerbitzuen informatizazioa.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura eta historia ondareak birbaloratzea.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Administrazioaren kulturaren kudeaketa ezagutzeko informazio bideak ireki, horrela zalantzak konpontzeko arazoak erraztuz. Aplikazio informatiko baten sorrera, non bai eskualdeko bai bertatik kanpoko kultura eskaintza ezagutu daitekeen.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Izaera historiko eta interes patrimoniala duten eraikinak probestea instalakuntza eta azpiegitura kulturalak eta beste eratakoak sortzeko, horrela ondare higiezinaren eraberritzea sustatuz eta zonaldeari zerbitzu bat eskainiz.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Egitasmo ezberdinak sustatzea 400/1000 egin izan zen bezala.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Biztanleriaren kultura formakuntzarako egiten ziren formakuntza soziokulturalerako ikastaroen diru laguntzak berreskuratzea.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herri bakoitzean kultura formakuntza eta hedapena sustatzeko hezkuntza programak sortu.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gaitegi zehatzak lantzen dituzten liburutegi espezializatuak izatea museoetan, artxibategi funtzioa beteko zutena. Adibidez Zugarramurdiko sorginkeria liburutegia.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Iparraldeko kultura dinamika ezagutu eta baloratzea eta eskualdean horrelako zerbait egiteak izango zituen aukerak aztertu.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikuspuntu berritzaile batetik abiatuta tokiko kulturaren ezagutza bultzatu.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herri txikietan kultura taldeen sorkuntza sustatzea.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gazteentzako kultura dinamika bultzatzea elkargune bat bezala, ez soilik eskaintzen diren ekintzetara joateko helburuarekin.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kulturaren eskuragarritasuna erraztea "mundu akademikoaz" haratago

2.- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOAK ZER NOLA EKINTZA/PROPOSAMENAK EDUKI BEHARKO ZITUEN?

- Potentziazko publikoa dagoen tokietara eramate kultura ekintzak. Kultura jendearengana gerturatzea, ez soilik jendea kulturarengana.
- Euskaraz burututako kultura ekintza eta jardunaldiak babestu eta sustatzea hau bera baloratzeko, baita kultura euskalduna ere.
- Kulturartekotasuna haurtzarotik lantzea, biztanleriaren dibertsifikazio kulturala probestuz.
- Herri txikien liburutegien zerbitzuen kudeaketa hobetzea.

5.-LABURBILKETA ETA AGURRA

Behin lan dinamika amaituta Parte-hartze teknikariak bileran parte-hartu duten pertsoneri eskerrak ematen dizkie eta hurrengo parte-hartze tailerretan parte-hartzera gonbidatzen ditu, baita Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiko web orrialdea eta participacioncultura@navarra.es mailaren bitartez ere.

Parte-hartzaileei ebaluazio galdetegia betetzeko eskatu ostean, dokumentuaren berradosturaren osaketaz informatzen zaie hau irakurtzeko inork bertan zuzenketarik egin nahi izango balu.